

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Etxeetakoez kanpoko ur zikinak estolda-sarera nahiz Krispiñako ur-araztegira isurtzeari dagokion tasaren 2020ko zerga-errola jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita etxeetakoez kanpoko ur zikinak estolda-sarera nahiz Krispiñako ur-araztegira isurtzeari dagokion tasaren 2020ko zerga-errola, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea —, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 4tik maiatzaren 4a artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 27an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE